

# Aldi baterako egonaldiak foru egoitzetan



## Zer dira?

Aldi baterako egonaldiak **atsedena hartzeko, indarra berreskuratzeko edo premia bati aurre egiteko** denbora eskaintzen die mendekotasuna duten adinekoen familiei edo zaintzaileei. APNABIk ez du aldi baterako plazarik eskaintzen bere etxeetan. Familiak laguntzen ditu eskaerak tramitatzerako orduan.

Ekainaren 13ko 108/2006 Foru Dekretuak erregulatzen du **Bizkaiko Foru Aldundiaren zentroetan eta hark itunduetan** kasu zehatzetarako (familiari atsedena ematea eta urrituen egoera larriak) aldi baterako egonaldiak. Erakunde horrek ere **horietara sartzeko sistema orokorra arautzea du**.

## Nork erabil ditzake?

Ezgaitasuna duten Bizkaiko pertsonak, 18 eta 64 urte bitartekoak, mendekotasuna aitortua dutenak.

## Prezio publikoa

Pertsonaren edo bizikidetzaren unitatearen gaitasun ekonomikoaren araberakoa izango da. Onuradunak **finantzatu beharreko ehunekoa** Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuak aldi baterako egonaldirako plaza adjudikatzeke asmoz emandako foru aginduaren bidez finkatuko da, urrituentzako prezio publikoa araupetu duen indarreko arautegian xedatuta dagoenarekin bat etorritik.


## Noiz eska daitezke?

Zaintzaile nagusiak atsedena hartzen duenean edo larrialdietan.

# 1. Zaintzaile nagusiaren atsedena dela eta

Kasu honetan eskaera egonaldia hasi baino gutxienez 2 hilabete lehenago egin behar da. Zerbitzuaren helburuak ondorengoak dira:

- Zaintzaren ardura nagusia duen pertsonak atsedena hartzea.
- Zaintza lanekin zerikusia duen zama murriztea, pertsona zaintzaileak eduki dezakeen estresa edo gehiegizko zama saihestuz.
- Familia- eta bikote-dinamika normalizatuen alde egitea.
- Desgaitasuna duen persona familia inguruan irautea laguntzea.



## Egonaldien iraupena

Gutxienezko egonaldia egutegiko **15 egunekoa** izango da, hilaren 1etik 15era eta 16tik 30 edo 31ra. Egonaldia **gehienez 3 hilekoa** izango da urte bakoitzeko, salbuespenezko egoeretan izan ezik, horietan egonaldia hilabete bat gehiago luzatu ahalko baita.

Ekaina eta iraila bitartean eskatzen diren egonaldiak aldizkakoak izango dira, gehienez hilabetekoak, eta egonaldi batetik bestera gutxienez hilabeteko tartea utziko da. Eskabidean ez bada epealdi jakin bat zehazten, ekinetik irailera bitarteko aldian plazak 15 egunetarako adjudikatuko dira, libre dauden datetan.

## 2. Larrialdi egoera bati aurre egiteko

Eskaera edozein momentutan egin daiteke. Ez da aurrez eskatu behar, zergatiak ondorengoak izanik:

1. Zaintzaile nagusia hiltzea eta senideek pertsona zaintzeko antolaketa eraldatu behar izatea.
2. Zaintzaile nagusiak eritasun akuturen bat edukitzea eta, ondorioz, ospitaleratu edo ebakuntza kirurgikoa egin ostean ospitaleaz kanpo sendatzeko denbora behar izatea.
3. Zaintzaile nagusiak eritasun akuturen bat duten beste senide batzuk (2.mailarainoko odol-ahaideak zein ezkontza-ahaideak) zaindu behar izatea eta, ondorioz, senideak ospitaleratu eta ospitaleaz kanpo sendatzeko denbora behar izatea.
4. Zaintzaile nagusiari senide bat hiltzea, bigarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna duena.
5. Urritua etxez aldatzea edo bizi den etxean obra garrantzitsuak egitea.
6. Zaintzaileak ezinbestekoak diren laguntzak emateko zailtasuna edo ezintasuna edukitzea.
7. Zaintzaile bakarra egotea eta lanik gabeko aldi bat behar izatea urrituen arreta berrantolatzeke.

## Egonaldien iraupena

Egonaldi horiek presako egoerak irauten duen bitartean iraungo dute, behar bezala justifikatuta dagoenean.



## Non eskaintzen da zerbitzua?

Bizkaiko Foru Aldundiaren zentroetan eta Gorabiderekin hitzartutakoetan:

- **La Ola** egoitzan. Sondikan dago; aldi baterako 28 plaza.
- **Plazakola** egoitzan. Markinan dago; aldi baterako plaza 1.
- **Atxarte** egoitzan. Abadiñon dago; aldi baterako plaza 1.
- **Eguzkia** egoitzan. Sopuertan dago; aldi baterako plaza 1.
- **Zumelegi** egoitzan. Elorrion dago; aldi baterako plaza 1.
- **Zubiete** egoitzan. Gordexolan dago; aldi baterako plaza 1.

## Zer dokumentazio aurkeztu behar dut?

Eskaearen arrazoia den **inguruabarraren frogagiria**.

Pretsona baliabide egonkor batean ez badago edota administrazioak ondorengo agiriak ez baditu, eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Bizikidetzta-unitatearen datu pertsonalen tratamendurako baimena.
- Gizarte zerbitzuen banku fitxa - Gizarte Ekintza Sailean jasota dagoen kontu zenbakia aldatu nahi bada.
- NANA - edo ordezkariaren nortasuna egiaztatzeko beste agiri bat.
- Epaia - lege-gaitasuna aldatzen duena eta tutoretza ezartzen duena, judizialki gaitasuna aldatuta dutenen kasuan.
- Ordezkaritza borondatez emateko eredu, Gizarte Ekintza Sailerako.
- Egiaztatzeko zaintzaren erantzukizunpeko aitortpena gizarte-zerbitzuetarako.

Eskabidearekin batera alegatzen den arragoiaren frogagiri ofiziala ere aurkeztu behar da.

## HARREMANETARAKO

Helbidea: Sabino Arana, 69. 48012 (Bilbao)

Telefona: 94 475 57 04

Helbide elektronikoa: [gizarte@apnabi.eus](mailto:gizarte@apnabi.eus)

[www.apnabi.org](http://www.apnabi.org)